



Higiezin agentzia bati 600 euro eman nizkion pisu bat gorde ziezadan alokatzeko. Paper bat sinatu genuen, non esaten zen hurrengo astean izenpetuko genuela kontratua. Adineko pertsona bat zaintzen dut, eta haren semeak hurrengo egunean esan zidan segur aski zaharren egoitza batera eramango zutela bere aita, eta aurreantzean ez zutela nire beharrik izango. Hori jakinda, berehala joan nintzen agentziara eta eskatu nien itzul ziezadatelako erreserba egiteko jarri nuen dirua, baina inondik ere ez dute nahi. Itzuli egin behar lidakete edo ez?

Zure galdera irakurrita, ondorioztatzen dugu sinatu duzuen dokumentuak alokairu-kontratua izenpetzeko epea zehazten duela, baina, berez, ez dela alokairu-kontratua, funtsezko elementu batzuk falta dituelako: iraupena eta prezioa, adibidez, eta zigor-klausularik ere ez duela dirudi. Horiek aurrekontratuak izaten dira, etorkizunean beste bat sinatzeko helburuz egiten direnak, izan alokatzeko edo izan erosteko, eta auzitegiek baliozkotzat jotzen dituzte. Aldeak ez dituzte erabat lotzen, baina eskubidea ematen dute etorkizunean konpromisoak betetzera behatzeko. Eta aldeetako batek bere kabuz erabakitzen duenean aurrera ez jarraitzea, eta beste aldeak onartzen duenean, aurrekontra-

tua baliorik gabe geratzen da eta jarritako dirua itzuli egiten zaio bankuko kontura. Kode Zibilaren 1.124 Artikulua mintzo da horretaz, eta artikulu horrek esaten du kontratu bat eteten denean, kaltetuak, etorkizuneko alokatzaileak alegia, eska dezakeela beste aldeak kontratua bete dezala edo onartu egin dezakeela baliogabetzea ordain baten truke. Zure egoerari dagokionez, agentziak eskubidea du kalte-ordaina eskatzeko eragin dizkizun kalteengatik (agiri bidez frogatu daitezke, gainera), baina ez du zertan izan erreserbarako jarri duzun diru guztia; ez dirudi, izan ere, bidezkoa, sinatu eta hurrengo egunean jakinarazi bazenien atzera egin nahi zenuela.



Duela hiru hilabete auto bat erosi nuen kontzesionario batean, bigarren eskukoa. Kontratuak esaten du ibilgailuaren elementuak egoera onean daudela. Lehengoan, ordea, banaketa-uhala apurtu eta hondatu egin zen autoa. Ia 2.000 euro balio du matxura konpontzeak. Saltzaileak uko egin dio ordaintzeari, eta 500 euro eskaini dizkit. Autoa garajejan dago eta nik berehala behar dut. Zer egin dezaket?

Legeak esaten du saltzailea behartuta dagoela kontratuan esandakoarekin bat datozen produktuak ematera, eta produktu horiek erabiltzeko moduan egon behar dutela. Matxura konpontzea, berriz, doakoa izango da, eta erabili ezinda utzi duten akatsak konpontzeko beharrezko diren gastu guztiak hartu beharko ditu bere gain: bidaltze-gastuak eta eskulanari eta materialei dagozkienak. Bigarren eskuko produktuek urtebeteko bermea izaten dute, eta lehen sei hilabeteetan sortzen diren matxurak produktuaren beraren gabeziek eraginak direla onartzen da. Dirudenez, zure bermea ere lehenbiziko sei hilabeteetan dago. Ondorioz, saltzaileak doan

konpondu behar dizu autoa. Ados jartzen ez zaretela ikusita eta autoa berehala behar duzula jakinda, gomendatzen dizugu Kontsumitzailea Informatzeko Udal Bulegora jo dezazula bitartekaritza eske, eta tailerrekoie eska diezaietza diagnostiko idatzi bat egin dezatela, autoa zernolako egoeratan dagoen esanez eta zergatik konpondu behar den adieraziz. Burofax bat bidal diezaietza saltzaileari, tailerrean egindako txostenaren kopia batekin, eta gastu guztiak ordain ditzala eskatu. Jakinarazi behar diezu, hala egin ezean, zuk ordainduko diezula tailerrekoie eta aztertu egingo duzula aurreantzean auzitara jo edo zer bide hartu.

DUDA LEGALAK

consultoriolegal@consumer.es

Legearekin zerikusirik duen dudarik izanez gero, emaila bidali dezakezu aldizkari honetara. Kasu bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, EROSKI CONSUMERen zerbitzu juridikoez gehien komeni den aholku juridikoa emango dute. Hala ere, orientabidea baino ez dute eskainiko. Lege kontuak konplikatuak dira eta epaian zein epaibidean eragiten duten era askotako elementuak hartu behar dira kontuan, kasuan kasu. Gogoratu, bestetik, kasu bakoitzari emango zaion erantzun bakarra orrialde hauetakoa izango dela.

ANTZEKO KASUETAN, EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Atal honetan era askotako zerbitzu eta hondasunei buruzko epaiak jaso ditugu, kontsumitzaileen intereseko izan daitezkeelakoan. Baina epaiak ematerako orduan ezin dira bi kasu, antzekoak izanagatik ere, bere horretan konparatu eta epaia berdina izango dela pentsatu. Kasu bakoitzean dauden frogak, alde bakoitzaren egoera zehatzak eta epaimahaiaren osakerak, besteak beste, halako edo bestelako epaiak ematea eragingo du.



KONTSUMITZAILEEN LEGEA: KALTE-ORDAINA TINDATEGIAN ARROPA HONDATZEAGATIK

Gabardina hondatu diote tindategi batean, baina hark ez du onartzen

Emakume batek gabardina bat eraman zuen tindategira, bosoizko lepokoa zuena, jantziaren kolore berekoa, zeina kaltetu egin baitzen. Bezeroa ohartu zen ezinezkoa zela hura konpontzea, eta berria erosi zion tindategiari (250 euro balio zuen). Halaxe jakinarazi zion enpresari, ahoz eta posta zertifikatu bidez, eta, azkenean, auzitara jo behar izan zuen. Asturiasko Probintzia Auzitegiaren iritziz, kontsumitzailearen jarrera irmo eta kontraesanik gabeak aditzera ematen zuen garbitzeko prozesuan gertatu izango zela kaltea (2013ko otsailaren 4koa da epaia). Kontsumitzaileen Legeak esaten duenari jarraiki, epaileak erabaki zuen tindategiak kalte-ordaina eman behar ziola, 150 eurokoa hain zuzen, jantzia oso erabilia eta maiztua zegoenez, ez zelako bidezkoa berria adina ordainaraztea. Horrela, bada, 150 euroko zigorra ezarri zion tindategiari, eta bezeroak jantzia garbitzeagatik ordaindu zituen 10 euroak ere itzuli egin behar izan zizkion.



SALEROSKETA-KONTRATUA BALIOGABETZEA

Bigarren eskuko ibilgailu bat erosi du, aurretik ezbehar bat izan zuela jakin gabe

Gizon batek 9.000 euro ordaindu zuen bigarren eskuko auto bat, baina akats batzuk zituela ikusi, eta diagnostiko bat eginarazi eta ordaindu egin behar izan zuen. Azterketa horrek agerian utzi zuen autoak ezbehar handia izan zuela aurretik eta ez zutela konpondu ekoizleak aginduko lukeen moduan; horretaz gain, hutsegiteak ere antzeman zizkieten instalazio elektrikoan. Horregatik guztiagatik, auzitara jo eta salerosketa-kontratua baliogabetzeko eskatu zuen. Irabazi egin zuen auzia. 2013ko otsailaren 15ean eman zuen epaia Zaragozako Probintzia Auzitegiak. Han esaten du erosi zuenean erosleak ez zekiela autoak aurretik ezbehar bat izan zuela, eta are okerrago zena, autoa konpontzeko lanak gairik eginak zeudela, adituaren txostenak frogatu zenez. Autoagatik jaso zuen dirua itzultzea zigortu zuen kontzesionarioa, eta diagnostikoa egiten gastatu zuen dirua ere eman behar izan zion kontsumitzaileari.

KALTE-ORDAINA BETEBEHARRAK PARTZIALKI EZ BETETZEAGATIK

Urbanizazio batean etxebizitzak erosi dituzte planoetan ikusita, eta agindu zizkieten kirol instalazioak Udalarenak dira

Zenbait pertsonak urbanizazio batean etxeak erosteko kontratua sinatu zuten, proiektua planoetan ikusita. Publizitate-errietan urbanizazioaren argazkiak ageri ziren, eta berriaz esaten zen erosleek zenbait elementu komun jasoko zituztela: igerilekua, paddel-tenis pista eta klub soziala. Baina elementu horiek ez zizkieten jabetzan eman, eta salaketa jarri zuten sustatzailearen aurka: 785.190 euroko kalte-ordaina eskatu zuten. Izan ere, inguru hartarako hirigintza-plangintzak galarazi egiten zuen publizitate-erriak esandako lekuan ageri ziren instalazioak jabetza pribatukoak izan zitezten, eta erabilera publikokoak jarri zituzten. Hori dela eta, Espainiako Auzitegi Gorenak, 2013ko otsailaren 28ko epaian, ontzat jo zuen salatzaileek kalte-ordaina jasotzea, 300.000 eurokoa hain zuzen.

